

## REFORAMURRIO COWORKING GUNEA ERABILTZEKO OINARRIAK ETA FUNTZIONAMENDU- ARAUDIA

### 1. Arrazoien azalpena

Amurrio Bidean SAUk, Amurrioko Udalaren sozietate publikoak, helburu gisa du udalerriko enpresa-sarea eta lan-merkatua dinamizatzea, ETEn balio erantsia eta lehiakortasuna areagotzen laguntzen duten zenbait jarduketa-ildoren bidez. Horrez gain, jarduketa-ildo horiek enpresa-ekimen berriak sortzea ahalbidetuko dute, eta, ondorioz, baita enplegua sortzea ere.

Azken urteotan areagotu egin dira Enpresak Sortzeko Zerbitzua eta Enpresei Laguntzeko Zerbitzua indartzeko ahaleginak eta baliabideak, bai baitakigu zer garrantzia duen gure tokiko garapen ekonomikorako Amurrioren enpresa berriak sortzeak eta kokatzeak, baita sortu berriak finkatzeak ere.

Horretarako dugun elementuetako bat Reforamurrio Enpresaldea Enpresen Mintegia eta Zentroa da. Gune hau ere indartu egin da, gure udalerrira proiektu berriak erakartzeko eta tokiko ekimenei espazioa eta zerbitzua emateko asmoz, gure enpresa-sarea zerbitzu-jarduera berritzaileetara edo balio erantsi handiagoa dutenetara dibertsifikatzeko. Hartara, talentu-ihesa ere galaraziko dugu.

Egungo testuinguruan, kontuan hartuta merkatua etengabe aldatzen ari dela, beharrezkoa da bai ekintzaileek bai aktiboan dauden enpresa edo pertsonak dituzten behar berriei erantzutea.

Hori dela eta, Reforamurrio Enpresaldea jarri da martxan, coworking gune bat, lanerako leku profesional bat behar duten baina Enpresen Mintegian eta Zentroan eskaintzen diren moduluetan leku egokirik aurkitzen ez duten pertsona eta enpresen eskaerei erantzuteko. Dokumentu honek gunea erabiltzeko oinarriak eta funtzionamendu-araudiak jasotzen ditu, baita barne hartzen dituen zerbitzuak eta horiek erabiltzeko bete behar diren baldintzak ere.

Zerbitzu honen kudeaketa Amurrio Bideanek egiten du, horretarako arduradun bat izendatuta. Pertsona horrek gunea dinamizatu, kudeatu eta antolatu beharko du.

## 2. Coworking gunearen helburuak

Interesa duten pertsona edo enpresei baterako gune bat ematea, zerbitzuak eta ekipamendua partekatzeko, eta, horrez gain, lankidetzeta-modu berriak ahalbidetzea eta sustatzea, ingurune dinamiko, ireki eta mugikor batean. Bertan, sormena, komunikazioa eta esperientzien nahiz ezagutzen trukea sustatuko dira, ideia berriak, proiektuak eta halakoak sortzeko.

Xedea da isolamendua saihestea eta lankidetzeta, komunitatea eta networking-a indartzea, eta, era berean, negozio-aukera berriei bide eman diezaieketen sinergiak eta aliantzak sustatzea.

Gune berri honek lankidetzeta berriak sorraraz ditzakeela uste dugu, lehendik ezagutzen ez diren gure udalerriko profesionalen edo enpresa txikien artean. Horri esker, baterako gune hau partekatzeaz gain, lankidetzan aritu eta proiektu edo ideia berritzaileak martxan jar ditzakete.

## 3. Gunearen eta bertako zerbitzuen deskribapena

Amurrio Bideanek coworking-era bideratutako gunea Reformurrio Enpresaldea Enpresen Mintegi eta Zentroko lehen solairuan kokatutako bulego ireki bat da; zehazki, 4. modulua.

Reformurrio Enpresaldeak 11 modulu ditu guztira, eta beste hainbeste enpresa barne hartzen ditu.

Horri esker, udalerriko enpresen artean lankidetzak ezartzea ahalbidetzen da.

Horrez gain, beheko solairuan Amurrio Bidean dago. Elkarte horrek, lehen aipatu bezala, hainbat zerbitzu ematen dizkie udalerriko enpresei eta pertsona ekintzaileei, hala nola enpresa-aholkularitza edo prestakuntza.

Garai batean erreformatario izandako eraikin hau birgaitu egin zen eta 2005ean inauguratu zen. Gaur egun, mugikortasun urria duten pertsonen, irisgarritasunari eta segurtasunari lotutako araudi guztia betetzen du.

Gunea, lehen ere esan dugun moduan, bulego ireki bat da (34,66 m<sup>2</sup>-koa), eta **4 lanpostu** barne hartzen ditu.

Lanpostu bakoitzak mahai bikoitz baten erdia eta aulki bat barne hartzen ditu.

Horrez gain, coworking gunean hauek aurki daitezke:

- Denek erabiltzeko tiraderak eta apalak
- Esekilekua
- Lau pertsonarentzako bilera-mahaia
- Bulegoko materiala gordetzeko armairua
- Relax besaulkia
- Hormako arbela eta arbel mugikorra
- Iragarkietarako panela

Gunearen erabiltzaileek zerbitzu hauek ere izango dituzte erabilgarri:

- Interneterako konexioa, wifi bidez
- Instalazioen mantentze- eta garbiketa-zerbitzua
- Berokuntza, elektrizitatea eta alarma-sistema
- Bilera-gelak, aurrez eskatuta eta libre badaude
- Partekatutako postontzia
- Office-a
- Papera eta CDak suntsitzeko makina
- Koadernatzeko makina
- Fotokopiagailua (persona bakoitzak kode bat izango du, eta egiten dituen fotokopien kopuruaren arabera fakturatuko zaio)

Erabiltzaileek Amurrio Bideanek enpresak sortzeko, enpresei laguntzeko eta prestakuntzarako ematen dituen zerbitzu orokorrak erabili ahal izango dituzte.

## **4. Deialdia**

### **4.1 Onuradunak**

Hauek erabili ahal izango dute coworking gunea:

- a) Jarduera ekonomiko bat gauzatzen duen eta horretarako lekurik ez duen edozein pertsonak edo enpresak.
- b) Lanean ari diren eta lan egiteko beren etxetik kanpoko leku bat behar duten pertsonak.
- c) Enpresa-idea edo -proiektu bat garatzen ari diren eta oraindik jarduerari ekin ez dioten pertsonak.

Lehentasuna emango zaie udalerrian eta eskualdean, hurrenez hurren, bizi diren eta jarduera ekonomiko bat gauzatzen ari diren pertsona edo enpresei.

Pertsona edo proiektu ekintzaile bakoitzeko **bi lanpostu** eskatu ahal izango dira gehienez (libre badaude). Lanpostu horiek erabiliko dituzten pertsonak identifikatu beharko dira, eta eskaera egin duenak horietako bat izan beharko du.

Coworking gunea eta bertako zerbitzuak erabiltzeko eskubidea pertsonala eta besterenezina da, eta ezin izango da osorik edo zati bat alokatu edo utzi, ezta dohainik edo aldi baterako bada ere.

#### **4.2 Aurkeztu beharreko dokumentazioa eta balorazio-irizpideak**

Coworking gunea erabiltzeko interesa dutenek eskaera beteta aurkeztu beharko dute **(1. eranskina)**. Bertan, beren datu pertsonal nagusiak eta gauzatu nahi duten jardueraren edo proiektuaren deskribapen labur bat jasoko dituzte.

Horrez gain, honako dokumentazio hau erantsi beharko dute:

- a) Merkataritza-enpresa bat bada, NANaren fotokopia, IFK eta eratzeko eskriturak.
- b) Lehendik sortutako enpresa bada, EJZn alta eman izanaren ziurtagiria.
- c) Ogasuneko eta Gizarte Segurantzako ordainketak egunean daudela egiaztatzen duten agiriak.
- d) Erabiltzailearen zinpeko aitortpena, adierazten duena ez dagoela zigortuta zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin, eta ez dagoela hartarako ezgaitzen duen legezko debekuaren eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakume eta Gizonen Berdintasunari buruzko Legearekin (otsailaren 18ko 4/2005) bat etorri **(2. eranskina)**.

Eskaerak Amurrio Bideaneko teknikariek baloratuko dituzte, puntuazioa emateko irizpide hauek erabiliz:

1. Amurrion bizi diren edo egoitza sozial edo fiskala bertan duten pertsonak edo enpresak.
2. Jarduera ekonomiko bat gauzatzen dutenak edo martxan jartzeko asmoa dutenak, diseinuarekin lotutako sektoreetan (horren alderdietako edozeinetan: IKTak, industriari lotutako zerbitzuak edo balio erantsia ematen dutenak, etab.), baita udalerrarentzat edo eskualdearentzat berritzailea edo estrategikoa izan daitekeen beste edozein jarduera ere.
3. Eskatzailearen CVa.

Amurrio Bideanek elkarrizketa labur bat eduki ahal izango du eskatzaile bakoitzarekin, baldin eta ez badu argi ikusten bere proiektua edo jarduera coworking gunerako egokia ote den.

### **4.3 Eskaerak aurkezteko lekua eta epea**

Coworking gunean sartzeko interesa duten pertsonak edo enpresek honako hauek aurkeztu beharko dituzte Amurrio Bideanen erregistroan: eskaera-orria behar bezala beteta eta aurreko atalean adierazten diren dokumentuak.

Interesdunek eskaera aurkezten badute, esan nahi du onartu egiten dituztela oinarri hauek.

Urtean bi deialdi (ekainean eta abenduan) irekiko dira eskaerak aurkezteko, betiere coworking gunean lekuak libre badaude.

### **4.4 Zerbitzuaren prezioa eta iraupena**

Coworking guneko postu bakoitzaren **hilabeteko** prezioa/kostua **25 €-koa da, gehi BEZari dagokion % 21**. Hilabeteko lehen 5 egunetan ordaindu beharko da.

Prezioa eguneratu egingo da urtero, KPIaren arabera, eta probintziako indizea hartuko da erreferentziazat.

Deialdiak aukera ematen du **12 hilabeteko** epean coworking-a erabiltzeko eta eskaintzen dituen zerbitzuez gozatzeko, zerbitzua hasten denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori urtebete luzatu ahal izango da, betiere eskaria berritzean ez badago beste eskaera berririk.

## **5. Gunearen funtzionamendua**

### **5.1. Ordutegiak**

Coworking gunea erabiltzen duten pertsonentzako eta enpresentzako ordutegia 08:00etatik 21:30era izango da, astelehenetik ostiralera.

Amurrio Bideanek ezarritako ordutegiak aldatu ahal izango ditu, baina, horretarako, gunea erabiltzen duten pertsona eta enpresei aurrez abisatu beharko die.

Zentroa itxita dagoen egunetan (jaiegunak eta abuztua), erabiltzaileak sarrerako ateko giltza pertsonalizatu batekin sartu ahal izango dira bertara, 08:00etatik 21:00etara.

### **5.2. Erabilera- eta bizikidetzarauek**

Gunea bulegoetan, langoetan eta lan-estudioetan egiten diren enpresa-jarduerak gauzatzeko dago pentsatuta, eta horretarako dago egokituta. Jarduera horiek dira, esate baterako, administrazio-lanak, kudeaketa-lanak, merkataritza-lanak, informatikaaplikazioen erabilera eta antzekoak. Hortaz, ez da erabiliko ez biltegi, ez showroom eta ez erakustoki gisa, ezta produktuak egiteko edo muntatzeko ere, besteak beste.

Ezingo da zarata egiten duen edo coworking guneko gainerako erabiltzaileei enbarazu egiten dien elementurik erabili, ezta instalazioa edo bertako elementuak hondatu ditzakeen elementurik ere. Horrez gain, debekatuta dago animalia eta/edo material arriskutsuak sartzea.

Nolanahi ere, eta gunearen berezitasuna kontuan hartuta, erabiltzaileek beste barnearau batzuk adostu ahal izango dituzte, bizikidetzara errazte aldera, betiere adierazitako arau orokorrak errespetatzen badira.

Coworking guneko erabiltzaileek ahalik eta ondoen mantendu beharko dituzte une oro guneko espazioak, altzariak, lagatako azalerak eta ekipamenduak. Bertan kalterik eraginez gero, beren kontura ordaindu beharko dituzte; gauza bera jarduera egiteko erabiliko den higiezinan erabiltzaile

guztientzat diren lekuetan. Ekipamendu bereziren bat behar izanez gero, Amurrio Bideani eskatu beharko zaio baimena ekipamendu hori sartu aurretik, eta ezingo dute gainerako erabiltzaileen gunea hartu.

Amurrio bidean ez da gelan uzten diren objektuez arduratuko. Erabiltzaileek kontuan hartu behar dute han uzten dutena beren ardura izango dela.

Ez da gutxieneko bertaratze-kopururik eskatuko, baina bai gunea arduraz erabiltzea. Hau da, ikusten bada erabiltzaile batek ez duela gunea modu eraginkorrean erabiltzen, arren eskatzen dugu erakundeko arduradunari horren berri emateko, gunea beste erabiltzaile bati utzi ahal izateko eta, hala, gunea zein zerbitzuak ahalik eta pertsona gehienek erabil ditzaten.

Era berean, eskatzen da errespetatu daitezela ordutegiak, erabilera, garbiketa orokorra eta guneko nahiz eraikineko gainerako erabiltzaileak.

### **5.3. Debekuak eta mugak**

Erabiltzaileek ezingo dute beren sozietate-eskrituretan enpresaren egoitza sozial gisa coworking gunea finkatu, ezta egoitza fiskal gisa ere.

Internet soilik lanerako erabil daiteke gunean. Berriaz debekatuta dago beste helburu batzuetarako erabiltzea (musika deskargatzeko, etab.).

Erabiltzaileek ezingo dizkiete giltzak hirugarren pertsoneri utzi Amurrio Bideanek horretarako baimenik eman gabe. Amurrio Bideanek une oro jakingo du nork erabiltzen duen gunea.

Bezeroak, bisitak, enpresa laguntzaileak edo proiektutik nahiz enpresatik kanpoko edonor jasoz gero, erabiltzaileak horren berri eman behar dio Amurrio Bideani. Bilera horiek bilera-aretoetan egin ahal izango dira. Horretarako, eskatu egin beharko zaio aurrez Amurrio Bideani, aretoak erabil daitezkeen egiazta dezan.

Kasu jakin batzuetan eta salbuespenekoetan baino ezingo dira egin bilera horiek pertsonaren lanpostuan, eta, horretarako, Amurrio Bideani galdetu eta baimena eskatu beharko zaio.

Ezin da egin gunean eta eraikinean lan egiten duten pertsonen segurtasuna arriskuan jar dezakeen ekintzarik edo jarduerarik.

#### **5.4. Datuen babesa**

Zerbitzuaren eguneroko funtzionamenduan, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoan (abenduaren 13ko 15/1999) oinarrituz babestuko dira datu pertsonalak.

Zerbitzu hau garatzean ematen diren datu pertsonalak, parte hartzeko eskaeran zein parte-hartze hori gauzatzean, erabiltzailearen baimenarekin jasoko dira. Datu horiek automatizatu eta Amurrio Bideanen informazio-sisteman sartuko dira. Amurrio Bideanek erabiliko ditu soilik datu horiek, kudeaketarako. Interesdunek datuak eskuratzeko, ezeztatzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko eskubidea erabil dezakete, araudiak jasotzen duen moduan.

#### **6. Kontratua suntsitzea**

Erabiltzailea coworking gunetik kanporatuko da honako arrazoi hauetako bat dela eta:

- a) Kontratuaren indarraldia amaitzen bada.
- b) Kontratua suntsitzen bada, bete ez delako.
- c) Enpresa erabiltzaileak kaudimenik ez duela adierazten duen kausarik badago.
- d) Guneko enpresa erabiltzailearen jarduera arriskutsua bada Amurrio Bideanen pertsona-, ingurumen- eta ondare-segurtasunarentzat edo guneko eta eraikineko gainerako enpresa erabiltzaileentzat.
- e) Erabiltzaileak kontratua etetea erabakitzen badu, berak hala erabakita. Kasu horretan, erabiltzaileak gutxienez hilabete lehenago abisatu beharko du gunea uzteko asmoa duela.
- f) Amurrio Bideanek erabakitzen badu coworking gunea beste erabilera batzuetarako behar dela. Kasu horretan, Amurrio Bideanek lokala erabiltzen duen enpresari jakinaraziko dio, utzi behar duen eguna baino 10 egun lehenago.

Behin kontratuaren iraupena amaitzen denean, lanpostuak erabat libre gelditu beharko du eta giltzak Amurrio Bideani emango zaizkio. Amurrio Bidean ez da gunean ahaztutako dokumentuez, objektuez, ekipoez, materialez eta halakoez arduratuko.